



## FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

### Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)

2025-eko Azaroa

#### KONPRIMATUAK EDO KAPSULAK MANIPULATZEARI BURUZKO ARRISKUAK

AEMPSEk gogorarazten du edozein forma farmazeutiko manipulatu aurretik botikaren fitxa tekniko edo prospektua kontsultatu behar dela.

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### PRESTAKIN ESTANDARIZATUETAN KALAMUA ERABILTZEA ARAUTZEN DA

Ministro Kontseiluak onetsi du prestakin estandarizatuetan kalamua erabiltzea arautzen duen errege-dekretua.

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### TXERTOEN EGUTEGIAREN EGUNERAKETA

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### BERRITASUNAK ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIAREN AURKAKO PLAN NAZIONALEAN (PRAN)

Espainiak amoxizilina-klabulanikoa birsailkatu du; hala, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egindako AWaRe sailkapenaren barruan "Access" izeneko kategorian zegoen lehen eta orain "Watch" kategorian dago.

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### ANTIPALUDIKOEN PRESKRIPZIOA EUSKADIN

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- i-botika berria.
- Bihotz-gutxiegitasun kronikoari buruzko NICE gida.
- Nahasmendu bipolarrari buruzko NICE gida berria.
- Dislipemiei buruzko ESC/EAS gida berria.

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPEN

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

#### 9. ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETA ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

#### KOMPRIMATUAK EDO KAPSULAK MANIPULATZEARI BURUZKO ARRISKUAK

AEMPSEk ohartarazi du ahotiko forma farmazeutiko solidoak, hala nola konprimatuak eta pastillak, manipulatuak eragin negatiboa izan dezakeela efikazia terapeutikoan eta ondorio kaltegarriak izan ditzakeela, bai pazienteengan, bai farmakoak manipulatu dituztenengan. Horrez gain, manipulazio horrek eragin handiagoa izan dezake tarte terapeutiko txikiko medikamentuetan, mihipeko konprimatuetan eta askapen aldatuko forma farmazeutikoetan. Horrenbestez, oro har ez dira medikamentuak manipulatu behar.

## 2 PRESTAKIN ESTANDARIZATUETAN KALAMUA ERABILTZEA ARAUTZEN DA

Ministro Kontseiluak onetsi du prestakin estandarizatueta kalamua erabiltzea arautzen duen errege-dekretua. Ohiko tratamenduak eraginkorrak ez diren kasuetan alternatiba terapeutikoa eskaintzeko beharrari erantzuten dio arauak, bereziki esklerosi anizkoitzagatik espastizitatea, epilepsia larria eta min kroniko errefraktarioa duten pazienteei dagokienez.

Mediku espezialistek soilik preskribatu ditzakete kalamu-prestakin estandarizatu formula magistralak; ospitaleko farmazia-zerbitzuetan soilik egin eta eman ahalko da, eta jarraipen kliniko indibidualizatua egingo da.

[Albiste osoa hemen.](#)

[BOEko argitalpen osoa hemen](#)

## 3 TXERTOEN EGUTEGIAREN EGUNERAKETA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak txertaketen eskuliburua eguneratu du. Aldaketak egin dira honako hauean:

- Eskolako osasuneko txerto-egutegian. 2025-2026 ikasturterako.
- Arrisku-taldeetako haurrei eta helduei egin beharreko pneumokoko-20 txertaketan.
- Helduei egin beharreko herpes zosterraren txertaketan.

[Txertoen egutegiari buruzko informazio oharra](#)

## 4 BERRITASUNAK ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIAREN AURKAKO PLAN NAZIONALEAN (PRAN)


OMEn AWARe sailkapenak [hiru taldetan sailkatzen ditu antibiotikoak](#):

- **Access:** ohiko infekzioetarako lehen edo bigarren aukera gisa gomendatzen diren antibiotikoak.
  - **Watch:** erresistentziak eragiteko arrisku handiagoa duten espektro zabaleko antibiotikoak hartzen ditu barne; horregatik, kasu jakin batzuetan bakarrik erabiltzea eta antibiotiko hauen zaintza bermatzea gomendatzen da.
  - **Reserve:** azken baliabide gisa hartzeko antibiotikoak hartzen ditu barne, beste aukera batzuek huts egin duten edo eraginkorrak izan ez diren egoeretarako (esaterako, bakterio multirresistenteek eragindako infekzioetarako) erreserbatu direnak.
- Helburua da tresna baliagarria izatea osasun-sistemetan antibiotikoen erabilera optimizatzeko, mikrobioen aurkako erabileraren Optimizazio Programei (PROA) bultzada bat emateko eta mikrobioen aurkako erresistentziari aurre egiten laguntzeko ere.



Nazioarteko gomendioak gure inguruko errealitate epidemiologikora egokitze aldera, [amoxicilina-klabulaniko antibiotikoa birsailkatu berri da Espainian](#); hala, **Access** izeneko kategorian zegoen lehen eta orain **Watch** kategorian dago, makrolido eta kinolonekin batera. Gure ingurunean antzeman diren bakterioen erresistentzia-mailak eta

erabilera-ereduak oinarri hartuta egin da aldaketa. Horren bitartez, **nabarmendu nahi da amoxicilina-klabulanikoa era arduratsuan erabili behar dela.**



[AWaRe kategorien Estatuko kontsumoa](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 5 ANTIPALUDIKOEN PRESKRIPZIOA EUSKADIN

Farmazia Zuzendaritzak gogorarazi du Euskadin paludismo akutuko tratamenduak soilik finantzatzen direla, eta ez profilaxia.

Egoera horretara egokitzeko, azaroaren 6tik aurrera Presbidek proguanil+atovacuona preskribatzeko aukera zabalik eukiko du bi aukerekin, bai "Finantzatua" (tratamendua) adierazteko, bai "Ez finantzatua" (profilaxia) adierazteko. Bi egoerak bereizteko, "Bisatua behar du" laukitxoaren bidez egingo da.

Antipaludikoak finantziatuta egoteko, preskripzio elektronikoa baino ez dira onartuko. (Ez dira paperean onartuko).

Preskripziorako informazioa intraneten Farmazia atalean edo esteka honetan aurki dezakezue:

[Antipaludikoen preskripzioa](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

**i-botika berria:**

Herritarrei zuzendutako **i-botika** fitxa berria argitaratu da

[Katarroaren edo gripearen sintomak, beharrezkoa al da medikamentu koktel bat?](#)

Gogoratu gainerako [fitxa](#) eta [bideo](#) guztiak gure web-orrian eskura dituzuela,

baita zenbait [lotura erabilgarri](#) eta [i-botika hiztegia](#) ere.

**Bihotz-gutxiegitasun kronikoari buruzko NICE gida:**

Irailaren 3an, National Institute for Health and Care Excellence (NICE) erakundeak helduen bihotz-gutxiegitasun kronikoari buruzko azken eguneraketa argitaratu zuen, bihotz-gutxiegitasuna dutenen diagnostikoa hobetze aldera, bai eta haien bizitza luzatzeko eta bizi-kalitatea bermatzeko tratamendua hobetzeko ere.

Kasu honetan, tratamenduaren inguruko ebidentzia berrikusten da alde batetik, eta baita eiekzio-frakzio murriztuko, eiekzio-frakzio zertxobait murriztuko nahiz eiekzio-frakzio kontserbatuko bihotz-gutxiegitasunaren monitorizazioa, bestetik, gomendio berriak gehituz.



## [Bihotz-gutxiegitasun kronikoari buruzko Nice gida](#)

### [Nahasmendu bipolarrari buruzko gida berria:](#)

2025eko irailaren 2an, National Institute for Health and Care Excellence (NICE) erakundeak nahasmendu bipolarra ebaluatu eta maneiatzeko buruzko gidaren azken eguneraketa argitaratu zuen.

Gida horrek barne hartzen du haur, gazte eta helduen nahasmendu bipolarraren (aurretik psikosi maniako-depresibo esaten zitzaionaren) antzematea, ebaluazioa eta tratamendua. Honako hauei aplikatuko zaizkie gomendioak: I motako nahasmendu bipolarrari, II motako nahasmendu bipolarrari, nahasmendu bipolar afektibo mistoari eta ziklo bizkorreko nahasmendu bipolarrari. Helburua da nahasmendu bipolarra dutenen tratamenduaren eskurapena nahiz haien bizi-kalitatea hobetzea.

### [Nahasmendu bipolarrari buruzko Nice gida](#)

### [Dislipemiei buruzko ESC/EAS gida berria:](#)

Europako Kardiologia Elkarteak (ESC/EAS) dislipemiei buruzko gida eguneratua argitaratu du.

Dislipemiak tratatzeko gomendioetan egon diren aldaketak jorratuko ditu gida honek, 2019ko bertsiotik argitaratu diren ebidentzia berriak oinarri hartuta.

### [Dislipemiei buruzko ESCren gida](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 7

### HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira urriko berritasunak:

| 2025eko azaroa                                                                     |                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | <b>Dulaglutida</b> | <b>Trulicity® 0,75 y 1,5 mg, 4 lumak.</b> Finantzatutako erabileraren hedapen pediatrikoa (bisatuarekin):<br>Diabetesa duten <b>10 urtetik gorako</b> pazienteen tratamendua:<br>- monoterapien, intolerantzia edo kontraindikazioak direla-eta metformina egokitzen ez denean.<br>- diabetesaren tratamendurako beste medikamentu batzuei gehituta.<br><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka. |
|  | <b>Vibegrona</b>   | <b>Obgemsa® 75 mg, 30 konprimatuak.</b> Maskuri hiperaktiboaren sindromea duten paziente helduen tratamendu sintomatikorako baimendua eta finantzatua.<br><a href="#">Fitxa teknikorako</a> esteka.                                                                                                                                                                                               |

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispensazio-baldintzak zabaltea.

 Merkaturatutako printzipio aktibo berria (edo lehendik dagoen bat administratzeko bide berria)  
2020ko urtariletik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 8

### MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK


Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Brimonidina tartratoa 2 mg/ml kolirioa suspentsioan 30 y 60 dosibakar 0,35 ml
- Cefuroxima 250 mg/5 ml ahozko suspentsiorako granulatua, 50 ml-ko potea

## HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Cloranfenicol/ Dexametasona, pomada oftalmikoa, 3 g-ko hodia
- Ciprofloxacino 3 mg/g pomada oftalmikoa, 3,5 g-ko hodia
- Neomicina sulfato/Prednisona, pomada oftalmikoa, 3 g-ko hodia
- Ipratropio bromuroa 20 mcg-ko soluzioa inhalatzeko, 200 dosi
- Naloxegol oxalatoa 12,5 mg y 25 mg konprimituak
- Roflumilast 250 mcg y 500 mcg konprimituak
- Semaglutida 0,25 mg soluzio injektagarria, aurrez kargatutako xiringa
- Karbamazepina 200 mg konprimituak
- Fluticasona propionato/ Salmeterol 50/500 inhalatzeko hautsa
- Imiquimod 3,75% crema, 250 mg-ko dosi bakarreko 28 ontzi
- Ropinirol 0,25 mg konprimituak

PRESBIDEN “Hornidura eza” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

## 9

### ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETAKE ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

Aldaketa hauek egin dira “[lehen mailako arretako zentroetan erabiltzeko sendagai erabilgarriak](#)” katalogoan (soilik gaztelaniaz):

- **Pleinvue®** 3 ahozko soluziorako hauts-zorroak: jada ez da beharrezkoa medikamentuen eskaera-formulario bereziaren bidez eskatzea, eskaera estandarra egiteko Eskabide-n sartu egin delako.
- **ATROVENT 20mg Plus** Aerosola-ren ordeztu **IPRATROPIO BROMURO CIPLA 20MCG 200D** (SAP kodea 706160 duena) eskatu behar da, erosketak zentralizatua egin delako.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

#### Lehen Mailako Arretako Farmazia

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: [farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus](mailto:farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus)



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da  
FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez  
Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da

